

DONOSTIA / Anjel Lertxundi, DK Literatura saioetan. Gaztelaniazko saioetan Pablo Martin Asuero eta Raul Guerra Garrido idazleak ariko dira

Erredakzioa

Hiru saiok osatuko dute DK Literatura ekimena, atzo Ramon Etxezarreta kultura zinegotziak adierazi zuenez. Euskarazkoan, Anjel Lertxundi Orioko idazlea Ihes betea bere azken liburuari buruz ariko da martxoaren 1ean. Solasaldiaren aurkezpena, berriz, Xabier Lete kantariak egingo du.

Gaztelaniazko saioei dagokienez, Pablo Martin Asuero eta Raul Guerra Garrido gonbidatu dituzte. Martin Asuero Istanbulgo Cervantes Institutoaren zuzendaria da eta Descripción del Egipto Otomano según las crónicas de viajeros españoles, hispanoamericanos y otros textos hitzaldia eskainiko du bihar. Bestalde, Raul Guerra Garrido idazle donostiarra bere literatur lanaz ariko da. Martxoaren 29an izango da hitzaldia.

Etxezarretak nabarmendu zuenez, literatura sustatzeko helburuarekin antolatzen ditugu jardunaldiak eta egileak irakurleengana hurbiltzeko saiakera egiten dugu.

Martin Asuero eta Lertxundiren emanaldiak Liburutegi Nagusiko sotoan izango dira eta Guerra Garridorena, berriz, Ernest Lluch kultur etxean. Guztiak 19:30ean hasiko dira.